

ERREPORTAJEA : 'Mari eta gaileta fabrika'

Gaileta fabrika batean daude emakume langileak; lanean ari dira, erritmo bizian. Musika sortzen dute eskuetan dituzten arrautzekin, irabiagailuekin eta ontziekin; koreografia bat dirudi. Andre langileen eszenarekin hasten da *Mari eta gaileta fabrika* antzezlan, eta haiek omentzea du xede Eidaberen obrak. Familia bereko hiru belaunalditako hiru emakume dira antzezlano protagonista. Beasainen (Gipuzkoa), Sopelan (Bizkaia) eta OIartzunen (Gipuzkoa) ikusi ahal izango da datozen asteetan.


«Bilbon oso ospetsua den gaileta fabrika bati buruzko lan bat egitea bururatu zitzaion Eidabekoei», esan du Olatz Gorrotxategi obraren zuzendariak. Azaldu du greba ugari izan zirela lantegi hartan 1920ko hamarkadan: «Nahiz eta emakumeen fabrika bat ez izan, haiek ziren gehiengo. Horregatik, indar simboliko handia dauka gertaerak». Hain zuzen, besteak beste garai hartako kontakizunak jorrazten ditu Galder Perezek idatzitako obrak.

Mari da antzezlano protagonista bat; gaileta fabrikaren lan egina zuten emakumeetako bat da. Adinekoa da gaur egun, baina ondo gogoan ditu orduko gertaerak. Luka bilobak egindako gaileta gozoak irekitzen dute haren oroitza-penen kutxa gazi-gozoa: «Gauza onak bazituen garai hark; harreman politak zituzten lantokian, eta oso indartsu sentitzen ziren greban. Baina garai gogorrek ere baziren», azaldu du zuzendariak. Horiek gogoratzen ditu amonak, eta harekin batera murgiltzen dira ikusleak gaileta fabrikari.

Ikusleak ez ezik, Luka ere lotzen zaio Marien gomutari. «Luka 10-11 urteko neska bat da. Mugitzeko premia dauka beti; ez da geldirik egoten, eta jakin-mina dauka», azaldu du Gorrotxategik. Eta, jakin-

Iraultzaren errezeta

Emakume borrokariaren bizitza jorrazten du 'Mari eta gaileta fabrika' antzezlano; tartean, andre langileena. Familia bereko hiru belaunalditako emakumeak dira protagonistak Eidaberen antzerkian.



ren gidaritza hartuko du», azaldu du Gorrotxategik. Eta nolako enborra, halako ezpala; bi belaunaldi borrokariaren ondorengoa ere borrokalaria da. Zuzendariak azaldu duenez, eskolan borrokatzen da Luka, emakume izateagatik dituen oztopoen aurka. «Espazioaren erabilera, tratu onak eta txarrak eta beste jorrazten ditu obrak». Gaileta fabrika eta etxea dira

FITXA

- **Izenburua:** *Mari eta gaileta fabrika*.
- **Testua:** Galder Perez.
- **Adina:** 9 urtetik gorakoentzat.
- **Zuzendaritza:** Olatz Gorrotxategi.
- **Aktoreak:** Ainhoa Artetxe, Nagore Gonzalez eta Itxaso Pala.
- **Ekolizpena:** Eidabe.
- **Informazio gehiago:** 944-79 43 15 edo info@eidabe.com helbidetan.
- **Datozen emanaldiak:** Otsailaren 17an, 17:00etan, Beasaingo Usurbe antzokian (Gipuzkoa). Otsailaren 24an, 18:00etan, Sopelako Kurtzio antzokian (Bizkaia). Martxoaren 2an, 17:00etan, OIartzungo udaletxean (Gipuzkoa). Martxoaren 10ean, 17:00etan, Donostiako Okendo kultur etxean.



min horri tiraka ezagutuko du amonaren ustekabeko iragan borrokalaria, amak kontatuta. «Lukak uste du amona guztiak etxeokandreak direla, eta berea ere hala dela». Neskatoak orduan ulertzen du amonak zergatik duen izaera gogorra. Era berean, ikusten du haren borrokari esker gauzak errazgoak direla berarentzat, baina borrokan jarraitu beharra dagoela, hala ere.

Etxetik fabrikara

Lukaren ama ere andre langilea da. Haren lan baldintzek ere badute gazitik, amonarekin bezala: «Alabarekin egon nahi du, baina ez du denborarik topatzen horretarako. Azkenean, nekatu eta bere bizitza-



● Gaileta fabrika eta etxea dira antzezlano agertoki nagusiak. EDAEE

antzezlano espazio nagusiak, baina badira beste batzuk ere: eskolako patioa eta tren geltokia, esaterako. Batetik bestera jauzika dabil kontakizuna, denboran atzera eta aurrera eginez. Ainhoa Artetxe, Nagore Gonzalez eta Itxaso Pala aktoreak ere hala dabilza, pertsonaiak tartekatuz. Gaileten errezeta da denboran eta espazioan jauzika ibiltzeko aitzakia: «Mantendu egiten da denboran; errezeta bera da fabrikaren zutena eta Lukak amonari gailetak egiteko erabiltzen duena».

Azaroan estreinatu zuten *Mari eta gaileta fabrika*. Orduan ireki zuten lehenengoz gaileta kaxa, eta errezetarekin herriz herri dabilza geroztik Gorrotxategi eta konpainia. Oso pozik daude jasotako erantzunarekin: «Harrera oso ona izan du; umeek pozik ikusten dute, baita helduek ere. Publikoak parte hartzen du, abestuz-eta». Protagonistak bezain indartsua da publikoarentzako mezua ere: «Indarra ematen dio publikoari iraultza egiteko. Baina argi uzten diğu borrokan jarraitu behar dugula, eta emakumeentzat oso garrantzitsua dela lanari lotutako borroka».